



ERRENDERI'KO BERTSOLARI ETA OLERKARI ZAARRAK

XABIER OLASKOAGA

Eguneroko lagun artean egiten degun ibiltalditxoan bertako partaide dan lagun batek eman ziran Arantzazuko Amaren Egutegiko orri bat Martxoaren 28an azalduakoa, aurtengoa ez dala ba dakit bañan neri oso arrera ona egin ziran.

Bertan Patxi Bakallo, Errenderiar bertsolari bezela azaltzen zan; berau ikusirik eta aditzera izanik gure erria bertsolari kabi izan zala berauen txetasunen bearrean arkitu nintzan eta zuzenean Xenpelar etxeko liburutegira abiatu nintzen bertan arkituko nituen asmoan.

Zorionez ala gertatu ere; bertako arduradun Fermin Olaskoagaren laguntza onarekin ainbat berri arkitu nituen, geienak Antonio Zavalak (S.J.) «Auspoa» liburu bilduman gure bertsolari zaarren argibedeak egiña bai zan, beste batzuek «Oarso» aldiskari eta Euskal Jakintzako liburuetan, alaz ere badakit utsunen batzuk izango dirala gai onetan eta eskertuko niok jakitñan gañean baldin bada batenbat azalduko balirake.

Mordoska ederren izenak arkitu ditut eta auetako bakoitzak idaz lan luzea betetzeko ainbat gai orokarrak dituzte, argaitik bakoitzaren izaera oso laburki azalduko dizuet, jaiotza eta eriotzako urteak eta zertxo bat gaigo.

Berauen bizitzako egintzak eta bertso asko, len esandako Auspoa liburu bilduman azaltzen dira txetasun guztiaz.

Bertsolari zaareren izena Jose Bizente Zapirain Esain degu 1820an jaioa, eriotzako urte egunik ez da azaltzen; au Bordazarko Joxe eta Juan Kruzen aita zan.

Juan Francisco Belaunzaran Zabala «Patxi Bakallo» 1832-1898. Ogeita lau urte zituala eskondu zan Ernanira andik Ameriketara gero eta an bertso asko egiña.

Juan F. Petriarena Berrondo «Xenpelar», 1835-1869. Bertsolarien artean maixu ta eredun ta naiz gazterik illa izan Euskalerrian bere bertsoak beti iraungo dute.

Fanderiako Jose Migel Salaberria Iraola, 1838-1905, eta Joaquín María Juaregi Salaberria, 1844-1921. Biak Xenpelaren denborakoak eta bertsolari trebeak.

Leandro Salaberria Astibia, 1845-1909, Beronen bertso ezagunena Errenderira etorritako komediente batzuerijarritakoa.

José María Elicegui Berasarte «Frailia». Onek egindako bertso elizkoi batzuek jasoak dirade.

Joxepa Anttoni Aranberri Petriarena, 1865-1943. Xenpelarren illoba, emakume bertsolaritza jatorriz zekarrena onek ere bertso asko egiñak ditu ta ezagunee artean 1917go gerrari jarriak, berdin 1941go urte goseti artan Markola soro batean aldatu ziran patata saillari.

Juan Kruz Zapirain Etxeberria, 1867-1934, eta bere anai Jose Zapirain Aranburu naiz bi amenak izan Bordazar baserrikoak, bertso mota guztitakoak Juan Kruzek egiñak baña aipagarriena Santa Genovebari egindako 163 bertso bere bizitzaren buruz.

Jose bere anaiaren bertsoak samintasunez beteak dira geienak bere bizitzan ez bai zuan izan berak merezi izan zuan atsegiñik. Alarguna deritzan bertsoa bere emaztea ill ondorengo, lendabiziko gurasoai eta azken gerrari egindakoak ezagunak dirade. Ondorengo bi seme ba ditu aitaren ondorenak jarraitzen dutenak Mañuel eta Xalbador «Ataño» izenez idazten duana. Iru libururen egillea duzue Auspoa bilduman azaltzen diranak. Txantxangorria Kantari «Txorix», eta Espetxeko negarrak dirade bere izenak.

Jose Maria Berra, «Telleri Txiki», 1875-1944 naiz eta saio asko egiña izan bertsolari jai alditan bertso gutxi gelditu dira ondorengozako.

Juan Zabaleta Lecuona, 1894-1951. Mota guztitako bertso egillea eta bertso paperetan lan ugariak utzitako bertsolaria, baita ere margolari bezela ere bere lanak azaltzen dira.

Eta azkenik bertsolari talde onetan azken il zana Pello Zabaleta Lecuona, 1896-1967. Beti umore oneko bertsolaria onek ere bertso paperetan lan ugariak utzitakoa, oso ezagunak bere «Txantxangorria, Oraingo Errenteriya eta Goiko kaletik gora Errenteri». Bere anaiarekin bat eginda 1917go gerrari egindako bertsoak ere gogoan eukitzeak dira.

Bertsolari saill onen ondoren beste batzuen izenak azaldu nai dizkizuet berauek naiz etorkiñak (1) izan bere bertsolari izaera geiena Errenderian igaro izan zuten.

Vicente Retegui Iriberrri, «Muzarro», 1838-1919. Xenpelarren bertsoetan ainbat aitatu, oroitu «Aizak i mutil mañontzi izenekoak».

Jose Ignacio Iñarra Etxeberria, «Txintxua», 1874-1912. Onen bertsoak ere oso ezagunak, batez ere Papelerako neskaxa langilleari jarriyak.

Jose Cruz Taberna Mitxelena, 1886-1942. Aozko bertsoetan ez zan aritzen bañan bertso paperetan lan ugariak utzi zituan.

Iru bertsolari auek Oiartzunen jaiok ziran bañan bere bizi modu geiena Errenderian igaro zuten eta bertako ill errian arkitu zuten bere azken lekua.

Jose Manuel Lujanbio Retegi «Txirrita», 1860-1936. Nork ez zuen ezagutu bertsolari au gure errian, berau ill baiño urte bete aurrez omenaldi berezi bat egin zizaion aldi artako «Euskaltzaleak» elkarteak antolaturik.

Juan Jose Lujanbio Zabaleta, «Saiburu», 1874-1954. Oso ezaguna au ere bai bertso saioetan eta bertso paperetan. Onek beste bi anai bertsolari izandu zituan eta Txirritaren lengusua zan. Biak Ernanin jaiok ziran ta naiz Txirrita Altzan illa izan, Juan Josek bere azken arnasa Saiburu baserrian eman zuan.

Jose Cruz Urrutia Olazabal, 1885-1962. Naiz eta Ondarrabian jaiok izan bere bizi modua gure errian igaro zuan ainbat eta ain bat bertso egiñaz. 1933go urtean «Ugaldearen oroipenak» izenekoak erritar batek ain maitetasunekin egiñak ziran. Au ere emengo ill errian lurperatua izan zan.

Eta azkenik, etorkiñ auen izenetan txetazun gutxi ditugun Jose Cruz Sagardia, «Olloki» izeneko du, bakarrik 1926 urtean il zala Zamalbide baserrian, jaiotzez Usurbilkoa izanik. Bere kidekoak Txirrita, Saiburu eta beste batzuek izan ziran.

Auek izan dira bertsolari zaarren izenak astertu al izan dituzten guztiak eta goazen orain olerkari, idazle eta antzerki egilleraen izen batzuek azaltzera.

Auek ere bertsolarien antzera idaz lan luzeak bear lituzteke bañan beren izenak azaltzarekin oraingoz naikoa izango dala iruditzen zait.

Juan Ignacio Uranga Berrondo, 1863-1934. Olerkari trebe eta goi mallakoa bere erriaren maitale, sariketa askotan irabazle izana, «Renteria» aldizkarian bere olerki mamitsu eta errikoiaz askotan idazlanak eaiña.

Erramun Astibia Etxegoyen, «Errenteria Aba», 1881-1916. Abertzale idazle eta goi mallako olerkaria bai abertzale eta bai elizkoi bezela, idaz lanetan ere oso gartsuak izan ziran berak egindako lanak. Gazterik illa eta ez jakin norañokoa izango zan bere olerkaritzarako etorkizuna.

Enrique Elizechea Arrieta, 1873-1947. Bere lanak bai idazle eta bai bertso eta olerkietan ugariak izandu ziran. «Ibaizabal» aldizkariak ba zekian beraren berri eta bertan bein baiño geiagotan zaritua izandu zan.

Ramon Illarramendi Lecuona, 1887-1927. Onenik ez dakigu gauz askorik olerkari bezela bañan bere lana antzerki egille bezela oso ona izandu zan bertako oitura eta edestia antzerkiaren bidez azaldurik.

Luis Jauregi Etxenagusia, «Jautarkol», 1896-1971. Olerkari eta idazle, euskera maillean eredun artu bearra. Olerki xamur, euskera errez eta errikoiean egiñak eta geienetan erri maite miñez goxotasun bereziarekin. Au zan gure Jautarkol beste olerkarien antzera erri maitale izana eta bera goratzen bizitza guztian saiatutakoa.

Eta azkenik naiz eta au ere etorkiña izan eta gure artean denbora gutxi bizi izan Errenteriako «Xoxua» izenpetuaz lan batzuek azaldu zituan, Igaz eta aurten ere bere berri izango dala aldizkari ontan uste det. Berau Jose Elzo Aspiazu, 1894-1916, genduen, gasterik illa bere jaioterri Astigarragan. Onek ere gure erriko kutsua izandu zuan eta olerkari bezela etorkisun aundikoa izango zan bañan Jaunaren naia ez zan orla izan.

Eta ona nere lantxoari amaiera eman, asmo onez beterik egiña da eta Errenderiarentzat onurakorra izateko asmoz egiña; uste det merezi dutela erri jaun auek ezagunak izatea eta bere eginkisunetaz zertxo bat jakitea.

¿Ez al dio erriak ezagutzea baño geiago bere izenetaz zertxo bat egin?

Eta azken agurra «Jautarkol»en «Errenderi nere jaioterri»ko olerkiaren azken zatia.

*Erri maitea...! Piztu, ba, piztu zure barruan
itxaropenaren sua...*

*Ez ote-dezu, antxen urruti ekusten zure
izar onaren kiña?*

*Aurrera beti...! Matxin, Isasti, Zabalbide ta
Ugarten ama lerdena...*

*Oraindik ez da zugan agortu Tripoli eta
Orango zure kemena*

*oraindik ba-du seme argiak egin-azteko
zure sabelak almena...*

*Izan, ba, laister Gipuzkoako koroi-gañeko
pitxi dirdiratsuen.*

(1) Etorkiña = Inmigrante.